

## ESKOLA PILOTAKO ARAU ESPEZIFIKOAK, 2020-2021 IKASTURTERAKOAK

### **1. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren izena**

ESKUPILOTA:

- Binaka
- Banaka
- Frontoia ezkerreko horma / trinketa

PALA:

- Pala - goma
- Pala - larrua
- Paleta argentinarra
- Ezker paretadun frontoia / Trinketa

ZESTA PUNTA:

- Binaka
- Kiniela
- Frontoi luzea / Frontoi laburra

## 2. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren joko araudiak

### ESKUPILOTA:

- Banaka: Ez da egokitu behar, bi pilotari bakarrik direlako.
- Binaka: Materialaren eta benjamin, alebin eta haur kategoriaren arabera Goxoa:
  - Kontuan hartuta erabilitako materiala eta pilotarien ezaugarri fisikoak, bi gune ezarriko dira: bata aurrelarietzat eta bestea atzelarietzat, eta, horrela, pilotarien arteko gutxieneko distantzia bermatuko da.
  - Partidan zehar, gunez aldatu ahal izango dute, modu antolatuan eta aurrez txapelketaren araudi eta sistema bakoitzean zehaztutako moduan.

### Alebin eta haurrak, takoak:

- Kontuan hartuta erabilitako materiala, pilotarien ezaugarri fisikoak eta frontoi laburren ezaugarriak (36 metro luze eta 10 metro zabal), ez da beharrezkoa inolako egokitzapenik egitea, normalean pilotarien arteko gutxieneko distantzia gordeko baita.

### Kadete, goxoa eta takoak:

- Kontuan hartuta erabilitako materiala, pilotarien ezaugarri fisikoak eta frontoi laburren ezaugarriak (36 metro luze eta 10 metro zabal), ez da beharrezkoa inolako egokitzapenik egitea, normalean pilotarien arteko gutxieneko distantzia gordeko baita.

### PALA:

- Pala - goma

- Kontuan hartuta erabilitako materiala eta frontoi laburren ezaugarriak (36 metro luze eta 10 metro zabal), ez da beharrezkoa inolako egokitzapenik egitea, normalean pilotarien arteko gutxieneko distantzia gordeko baita.
- Hasierako kategorietan, zehazki benjaminetan, material egokitua erabiltzen den bakoitzean (tenis pilota edo fronteniseko presio baxuko pilota), bi gune ezarri beharko dira, bata aurrelariarentzat eta bestea atzelariarentzat, eta, horrela, pilotarien arteko gutxieneko distantzia bermatuko da.

- Pala - larrua

- Kontuan hartuta erabilitako materiala eta frontoi laburren ezaugarriak (36 metro luze eta 10 metro zabal), ez da beharrezkoa inolako egokitzapenik egitea, normalean pilotarien arteko gutxieneko distantzia gordeko baita.

- Paleta argentinarra

- Kontuan hartuta erabilitako materiala eta trinketen ezaugarriak (-30 metro luze eta 9 metro zabal), ez da beharrezkoa inolako egokitzapenik egitea, normalean pilotarien arteko gutxieneko distantzia gordeko baita.

ZESTA PUNTA:

- Kontuan hartuta erabilitako materiala eta frontoi laburren (36 metro luze eta 10 metro zabal) eta luzeen (45-54 metro luze eta 10 metro zabal), ez da beharrezkoa inolako egokitzapenik egitea, normalean pilotarien arteko gutxieneko distantzia gordeko baita.

### **3. Kirol federazioek antolatutako txapelketetarako edo jardueretarako jarduketa arauak**

TXAPELKETAK

Jokoaren araudian ezarritakoa gorabehera, honako hauek izango dira jarduerak eta txapelketak modu seguruan egiteko honako jarduketa hauek hartu beharko dira kontuan:

- Pilotariak federazioak ezarritako orduan bertaratu beharko dira, eta antolakuntzako arduradunaren aurrean identifikatu beharko dira, jakiteko noiz bertaratu daitezkeen beroketa eta joko eremura.
- Ahal dela, kirol arropa eta oinetakoak jantzita bertaratu beharrezko guztia ere: babes takoak, eskumuturrekoak, gerrikoa, kaskoa, ukondokoak, betaurrekoak, pala, erraketa, xistera eta abar.
- Partidak iraun bitartean, kantxan soilik egon ahalko dira federazioak, klubak edo ikastetxeak horretarako izendatutako arduraduna, partida jokatu duten pilotariak, begirale bat bikote edo pilotari bakoitzeko, epailea edo bi epaile – beharrezkoa bada–, eta berotzen ari diren pilotariak –horretarako zehaztutako lekuan–.
- Beroketa gune bat eta joko gune bat ezarriko dira.
- Pilotari bakoitzari pilota bat eramaten utziko zaio, beroketarako, eta pilotari horrek bakarrik erabili ahal izango du. Behin amaitutakoan, pilota hori erretiratu egingo du pilotariak.
- Frontoira ezingo da sartu partida jokatzeko ezinbestekoa den beste osagarririk.
- Arduradunak bi pilota emango dizkio epaileari, partida jokatu dadin; horiek, partida amaitutakoan, arduradunak erretiratu egingo ditu, eta berehala desinfektatuko dira.
- Ahal dela, 1:1 (banaka) eta 2:2 (binaka) formatuari jarraitu; 5:5 formatuari eta kinielei jarraitu ahal izango zaie, une oro pertsonen gehieneko kopurua errespetatuz.
- Txapelketan erabilitako pilotei gomendatutako higiene eta garbitasun neurriak aplikatu.
- Pala, erraketa eta xistera bakoitza pertsona bakarrak erabiliko ditu, eta ezingo dizkio beste inori utzi.
- Behin partida amaitutakoan, pilotariak instalaziotik irtengo dira.
- Pilotariak lizentzia antolatzaileek horretarako jarritako mahaian utzi beharko du, hark eskatutakoan, irakurtzeko moduan, eta pilotariak berak jaso beharko du, esandakoan.
- Partida hasi aurretik, pilotariak edo euskal pilotako eskolako ordezkariak joko pilotak epailearen saskian utzi beharko dituzte, hark adierazitako moduan.
- Jokoa hasi aurretik, pilotariak eta epaileak aurkeztuko dira. Lehenik eta behin, frontoiaren alde batean hasiko dira, eta bata bestearen atzetik joango dira erdigunera; gero, ikusleen aurrean jarriko dira, eta, azkenik, epaile nagusiak hala agindutakoan, ikusleak agurtuko dituzte. Une oro bi metroko distantzia utzi beharko da haien artean.
- Sakea zozketatzeko txapa edo txanpona epaile nagusiak jaso beharko du lurretik; pilotariak ezingo dute jaso, kortesiazko keinu moduan bada ere.
- Jokoak iraun bitartean, tanto eta tanto artean pilotaren bila joan behar bada, hurbilen dagoen pilotariak egingo du (konturatu ez bada, epaile nagusiak ohartaraziko dio).

- Tanto eta tanto artean pilota aldatu nahi bada, honako prozedura honi jarraituz egin beharko da, behin pilotariren batek epaileari jakinarazi dionean pilota aldatu nahi duela:
  - a. Piloten saskia antolakuntzak aukeratutako mahaiaren gainean egongo da.
  - b. Pilota aldaketa eskatu duen pilotaria eta epailea saskira inguratuko dira, eta pilotariak nahi duen pilota edo pilotak hartuko ditu.
  - c. Behin jokatzeko zein pilotarekin jarraituko duten erabakitze beharrezko jarduketak egindakoan, pilotariak jokoan zegoen pilota eta aukeratu ez dituenak saskian utziko ditu, epaileak zehaztutako lekuan.
- Partidaren amaieran, jokoan zegoen pilota partida irabazi duten pilotarietako batek jasoko du, eta epailearen saskian utziko du, hark esandako lekuan. Antolatzaileak epailearen saskiko pilota guztiak jasoko ditu, hark esandakoan.

#### JARDUERAK

- Talde bakoitzarentzako ordutegi bat ezarriko da, zirkulazio egokia bermatzeko eta pilaketak saihesteko tarte nahikoarekin.
- Pilotari bakoitzak berak bakarrik erabiltzeko materialaren banakako lote bat sortu, eta, ezinezkoa denean (esku huska), gomendatutako higie eta garbitasun neurriak aplikatu.
- Entrenamenduetan azpitalde egonkorak sortu.
- Pilotari bakoitzak berak bakarrik erabiltzeko materialaren banakako lote bat sortu, eta, ezinezkoa denean (esku huska), gomendatutako higie eta garbitasun neurriak aplikatu.

#### **4. Parte hartzen duten entitateetan egin beharreko entrenamenduetarako eta saioetarako jarduketa arauak.**

Aurreko apartatuan txapelketetarako eta federazioek antolatutako jardueretarako eta entrenamenduetarako zehaztutako jarduketez gain, jarraian zenbait jarduketa osagarri zehaztu dira, parte hartzen duten entitateek beren entrenamendu eta jarduera saioetan errespetatu beharrekoak:

- Pilotariak ezarritako orduan iritsiko dira, eta itxaron egingo dute jardueraren begirale edo pertsona arduradunak entrenamendu gunera sartu ahal direla esan arte.
- Ahal dela, entrenamendurako arropa eta oinetakoak jantzita bertaratuko dira, baita entrenamendurako beharrezko guztia ere: babes takoak, pala, erraketa, xistera eta abar.